

ARRASATEKO UDALAREN GAITZESPENA GASTEIZKO BI ERAILKETA MATXISTEN AURREAN

Pasa den ostiralean, erailketa matxista bikoitza gertatu zen Gasteizen. Arrasateko Udalak irmoki gaitzesten ditu erailketak eta emakumeen aurkako edozein eraso eta era berean herritar guztiei eskatu nahi die salatu ditzatela emakumeen kontrako eraso guztiak.

Azkenik, Arrasateko udalak dei egiten die herritar guztiei astelehenean arratsaldeko 20:00tan emakumeen mundu martxak deitu duen elkarretaratzera hurbiltzeko.

Arrasate, 2018ko Apirilaren 21a.